

Euskaldunen istorioak

Augustin Zubikarai idazle ondarroarraren jaiotzaren ehun urte betetzen dira azaroaren 3an. Hainbat komunikabidetarako idazteaz gain, literaturan ere lan oparoa utzi zuen, euskera beti ardatz zuelarik

Adolfo Arejitaren erreportajea

Augustin Zubikarai, euskal idazle oparoa



Augustin Zubikarai, Gernikako Arbolaren aurrean.

EHUN urte aurtengo azaroaren 3an Augustin Zubikarai Bedialauneta euskal idazlea jaio zela. Europako lehen gerratearen urte zorigaitzoko horretan jaio zen, handik 22-23 urtera berriro ere gerra dela eta gorriak ikusi behar izateko.

Mendeurrena, beste urteurren batzuk bezala, aitzakia edo zio paregabea izan ohi da, gertaera historiko jakinen edo meritu handiko jendearen oroitzak egiteko edota gogoeta edo ikerketa. Gure kasuan, euskal literaturaren alde, eta hizkuntzaren edo herri jakintzaren alde, ahalegin aparta egin zuen Augustin Zubikarai (1914-2004) idazlearena. Euskal idazle eta euskal kultura eragile legez bere bizi luzean etengabe egin zuen lan handia da gorazarre honen arrazoi, nahiz beste hainbat ertzetatik ere omengarri den gure gizona. Baina beste jardunbide guztiak gorabehera, beronen idazle ekimena ageri zaigu gailen bere bizitza osoan.

Gaztetxoa zela, hemeretzi urte oraindik egiteko, hasi zen bere lantxoak aldizkarietara bidaltzen. Orduko aldizkari batzuetan, *Ekin*, *Euzkadi*, *Euzko*, *Gudari*, *Argian*, idazlan batzuk argitaratu zen jada gudu aurretik, eta orduetik erakutsi zuen antzerkirako zaletasuna eta dohaina. *Euzkadi* egunkarian hiru atera zituen eta eurotan ezagutzera eman bizi guztian hur-hurreko izan zituen gai bi: abertzaletasuna (*Aberrijagaz bizi*) eta itsas mundua (*Itxas lapurrak*). Gudu aurrean antzerkigintzak giroa alde zuen; urte oparoak suertatu ziren ordukoak genero horrentzat. Baina gerraoste ilun lanbrotzuan ere genero hauxe izan zen argiune zipriztinak goizen ezagutu zituena, eta Zubikarairaren kasuan berariaz: 1945ean *Itxasora* izeneko lana saritu zioten Biarritzen, baina ospea gerotxoago datorke: 1956ean Seaska inguruan Gabon giroko antzerkia saritu eta Ondarroan antzezteaz plazaratuko da idazlearen zaletasun handienetarikoa bat. Orduetik aurrera, batez ere hurrengo hamar-hamabost urteetan antzerkigintzari gogotik ekin zion, idazteari eta taularatzeari. Beraren lane-



Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga eta Iñaki Eizmendi, 'Basarri', hirurak gerra denboran 'Eguna' egunkarian jardundako kazetariak, Elorrioko plazan.

tarik gizartean ezagun egin zirenen artean *Kresaletan* dugu aipagarriena, Domingo Agirreren eleberriz eguna antzerkirako taxutuz, G. Solabarriaren doinuaz. Hainbeste emanaldi egin ziren antzezlan honenak, Donostian eta Bilbon besteak beste. *Egan* aldizkariak paper garrantzitsua jokatu zuen gerraosteko urte latzetan, Zubikarairaren antzerkia argitaratu eta ezagun bihurtu zedin, beste idazle askoren artean bezala. Liburu gisa, bildumetan, aldizkarietan ere atera ziren beste asko, eta argitaratu barik ere hainbat geratu dira. Etengabeko jarduna izan du Zubikarai antzezlan-idaztea: 60ko hamarkadan oparoa, baina 80koan ere hainbat ondu zituen eta hainbat lan sarituak ere gertatu ziren. Hurreko laguntzaile eta jarraitzaile bat ere izan zuen genero honetan, antzerkiari segida emango ziona: Jose Antonio Arkotxa mutrikuarra.

KAZETAGINTZA Idazle legez, kazetaritza dugu Augustinek ia bere bizi osoan landu izan zuen generoa; gaztetan lanbidez eta sasoi helduan zale-

tasunez eta jitez. 1933an bertan Zornotzan Jaungoiko-Zale-k argitaratzen zuen *Ekin*-en kolaboratu zuen, eta bertan lanean hasteko ere izan zen, gaisoaldi batek galarazi ez balio. 1937an hasiko zen buru-belarri kazetagitza. Guduak eztanda egin zuenean eta Iparraldetik itsasontziz beste ondarro batzuekin Bilbora heldu zenean, eta Euzko Gudarostearen zerbitzutan jartzeko aurkeztu zenean, kazetari-lana egotzi zioten agintariak gudu zerbitzurako, Esteban Urkiaga *Lauaxeta*-ren bitartekotzat. Artean ezagunak ez ezik, lagunak ere baziren, literaturari eskerrak, *Euzkadi* egunkaria tarteko. Lumaz lan egingo zuen, iskiluekin barik. Hor garatuko du bere biziko idazle alderdi sendoenetarikoa. 1937ko urtearekin batera *Eguna* egunkaria abian jartzen delarik, idazkaritza-buru ardura hartuko du eta horretan jardungo du Bilbo jausi arte. Kazetari senak bere bizi osoan lagundu zion Augustini, eta gerraosteko etenaldia gorabehera, ahal izan zuenean berriro heldu zion kazetari-lanari, ez lanbidez, gerratean bezala, baina bai kolaboratzaile gisa hainbat aldizkari eta egunkaritan. Egunkaritan, Donostiako *Diario Vasco*-n apur bat, baina 1977an DEIA egunkaria sortzen delarik, egunkari honetan aterako ditu aldiria aldiria bere zutabeak. Zutabeetan agerturiko idazlan laburrok, guztiok bildurik, liburu gisa ate-

Augustin Zubikarai bizkaieraz idatzi zuen ia guztia, lotsa eta ikara barik, baina gipuzkeratik erraz aditzeko moduan

Euskaldunen istorioak

ra zituen geroago: *Sits eta bits* (1995) eta *333 oroipen eta ikuspegi* (1994). Geure iritziz Zubikarainen lan-ildorik bikainenetarikoa idazle gisa. Irratiz ere lankide fina izan zen, batean herri-kronikak, besteak efemerideak, bestean bestelako gaiak. Ondarroako kronikak astero bidaltzen zituen zintzo Bilbo Herri Irratiaren FMko euskal irratsaioetara 70-80 urteetan. Zubikarai onduak ziren, urteko egun jakin batez historian zehar zer gertatu zen gogoratzen zuten efemerideak ere.

Narrazio generoan, laburretatik abiatu zen, eleberritankerako genero luzeagoetara jotzeko. Nolanahi ere neurri laburreko kontaera, kronika eta bestelako idatzietan erosoago sentitzen zen gure idazlea, narratiba luzean baino. Kontaerak, narrazio luzeak bezala, dialogo askokoak eta esaldi laburrekoak. Antzerkian ohi zuten jokabidetik ez urrun. Hirurogeitaka urteetan landu zuen kontaera laburra apur bat, *Gorri eta txingar*, *Gantzeruak izan dira* eta beste titulu batzuekin, 80ko hamarkadan bilduma liburu birekin osatzeko: *Esan eta esango* eta *Peru eta Maria gureak*.

Nobelagintzan 80ko hamarkadan barrena abiatu zen gehienbat. Aitzindari itzaltsua zuen Ondarroatik irten barik XX. mende hasieran: Domingo Agirre apaiza. Baina Augustin, apaiztegi giroan berdingotan ikasia bazen ere –Saturrarango Seminarioan bost urte eta Gasteizkoan urtebete, etxetik ikasita, euskaltzaletu eta idazten zaletu bai egingo zen hor, baina Don Domingoren erretorikarik ez haren diskurtsorako joerarik ez zitzaion itsatsi. Guztiz bestelakoa da nolana ere Zubikarainen narratiba. Bestelakoa, baita ere, bere belaunaldiko eta adiskide izan zuen Eusebio Erkiagaren ondoan. Eusebio aspaldi sartua zen genero hori lantzen; Zubikarainen plazaratzea, aldiz, beranduan gertatzen da, *Bale denporak* (1978) lanarekin, antzerki zikloari segida eman nahi balio bezala. Ziurrenik, bizkaierazko literaturak genero horretan ageri zuten hutsune nabarmena bete guran sartu zen gure idazlea genero horretan. Aipatu obraren jarraian *Anton Guzurretxe* eta beste batzuk etorriko dira, *Zaldupeko txiki* (1991) zarratuko den zikloan. Idazlearen balioetariko bat, antzerkietako berbera: herriko gizar-tearen eta jendearen ispilu errealista eskaintzean datza, erraz tartekatzen dituela herri jakintzako edukia, ustekizunak, esamoldeak eta herri



'Eguna' egunkarian lan egin zutenei Elorrion eskaini zitzaizen omenaldian. Udaletxeko balkoian, Ardanza lehendakariarekin batera, besteak beste, Alejandro Mendizabal eta emaztea, Juan San Martin, Iñaki Eizmendi, 'Basarri'; Eusebio Erkiaga, Jesus Insausti, 'Uzturre', eta Augustin Zubikarai.

literaturakotzat joko genituzkeen hainbat esaera eta antzeko. Deskripzioetan asti gutxi gastatzen du. Pasadizoak eta gertaerak labur eta bizkor kontatzen ditu. Eta beti ere elkarrizketa bizkorrez beterik bere eleberriak.

Itzulpen saio bat edo beste ere gina da literatura alorrean, berariaz *Lugoko ipuin errikoak* (1986) liburuaz. Herri ipuinak galizieratik euskaturik, eskola mundurako irakurgai egokia eskaintzeko usteaz eginiko saioa. Ez da harrizkoa, ipuin genero hautatu izana ere literatura barruti zabaletik. Ez bakarrik helburu didaktikoak bultzatzen. Herri literatura begiko zuen, eta herri ipuinak hala-beharrez.

HERRI-HIZKERA Herri monografiak izan ziren bere beste arlo kutunetarikoa bat, eta bere liburuen zerrendan Lea eta Artibai ibarretako herrienak dira ia denak, baina Motriku, Ea eta Natxitura arte hedatzen du bere eremua. Idazlearen kazetari joeraren agerrialditzat jo daitezke monografiak. Historia, etnografia, arte edo darabilen beste edozein gaitan bezala, erreportaje egokiak egitea du idazleak helburu, ez ikertzaile paper hartzea. Herri batekoentzat bere-bere duten kronika baten bidez bertako jendea euskaraz irakurtzeko egarriz ipintzea; zabalkunde bidez euskaltzaletasuna

EGILEA

ADOLFO AREJITA



Labayru Ikastegiko zuzendaria da. Horrez gain, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain osoa da. Gazte-gaztetatik izan ditu euskal hizkuntza eta literatura langai, jardunbide profesionalean nahiz hain bakoan. Labayru Ikastegiaren barruan Bizkaiko euskal idazleen lanak berreskuratzen aparteko ekarpena egin izan dau. Augustin Zubikarraigaz hartu-emon pertsonala eduki eban hainbat urtetan eta gorazarre honetan Zubikarai pertsona eta idazlea gure memoria kolektibora ekartzeko ahalegina dago.

biztea. Herri-hizkera biltzen egin zuen ahalegina da idazlearen beste alderdi meritugarrietarik bat. *Itxas-aize*. *Esaldi eta iztegi antzerakoa* (1989) dugu bere Ondarroako hizketaren bitxitasunak biltzeko egin zuen lanik aipagarriena, baina ez bakarria. Jaioterriko berba, esamolde eta beste baliabide askoren testigantzak bere liburu askotan antzeman daitezke, baina era sistematikoenean liburu honexetan. Hitzak, lokuzioak eta erre-frauak atal berean biltzen ditu, atzeko eranskin bitan aparteko lokuzioak eta arrain izenak dakartzala. Bildumako hitz eta esapide askotan argibideak eta zehaztasun egokiak gehitzen ditu, urrunagotik begiratzen duenari edo lexikografoari argigarri gertatzen zaizkionak.

Herri kantuen biltzaile gisa ere erakutsi zuen burua. Hor-hemen idatzietan barreiatuak dituen bertso edo kantu atalez gainera, beren beregi aipatzea merezi du *Ondarru kantu, otoi, orru...* bildumak (1984), Ondarroako Kultur Etxeak argitaratua. Augustinek ekimen trinko eta sendoa burutu zuen kultura-etxe honen bidez jaioterriko hizkuntza, literatura eta herri jakintza bultzatzen, batean literatura lehiaketak, bestean hitzaldiak eratuz, aldizkaria eta hainbat liburu edo liburuxka argitaratuz. Ahalegin horren emaitza ugarien artean, aipa-

tzekoak dira *Banaka biñaka* (1985) edo *Barre eta irri* (1988), adibide modura.

Augustin Zubikarainen emaitza idatzia bere osoan ikusita, ondorio batzuk ater daitezke. Ugaritasuna, lehenik. Lan asko eta askotarikoak idatzi zituen; luze eta labur batera joz gero, neurri esker hartzen dutenak. Bere produkzio idatzia argitara emateko ipini zuen kemena eta ahalegina ez ziren izan makalak, batez ere zailtasun handiko urteak zirelako argitaratzeko; gaurkoak baino agian zailagoak. Egia da Augustinek horretarako irtenbide bat bilatu zuela lehiaketetan. Bere produkzio literarioaren zati handi bat lehiaketetara aurkeztu zuen eta sarituak gertatu horietarik hainbat. Argitalbidea horrek errazten zion askotan. Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin espresuki aipatzekoa da liburu batzuei dagokienez. Idazlearen hizkera dela eta, herri joerako idazlea dela eta herri hizkeraren lekuko bikaina dugula baieztatu daitezke, huts handi barik. Erraz idazten duen idazlea izanik, gehiago jaramoten dio gauzak zuzen, labur eta erraz esateari, bitxitasunen bila ibili barik.

BIZKAIERA ETA GIPUZKERA Euskara moduari dagokionez, bizkaieraz idatzi zuen ia guztia, baina gipuzkeratik erraz aditzeko moduan. Horretan ez zuen jokatu eredu bikoiztasunaz, Azkuek, Akesolok, Erkiagak eta beste bizkaitar batzuek egiten zuten bezala, behin bizkaieraz, behin gipuzkeraz. Bere bizkaiera herriko horri eutsi zion, lotsa eta ikara barik, baina gipuzkeratik hurbil egiten den erre-gistro bat erabiliz. Eta jokabide hori hasiera bertatik izan zuen. Sarritan entzun nion esaten, *Eguna* atera zutenean, arantaren estiloa baztertzera egin zutela eta gipuzkoarrek ere erraz ulertuko zuten bizkaiera malguago bat egiten saiatu zirela. Augustinen hizkuntz jokabidea ez dago beraren aurreko belaunaldiak, Azkuek eta Agirrek urratu zuten erudirik urrun, nahiz praktikan bere diferentziak eta joera partikularrak zaindu bere idazle ibilbidean.

Zubikarai, jaiotza-mendeurren honetan, esker onez eta merezi duen heinean omendu beharreko idazlea dugu. Obra jakin bategatik baino gehiago, obra osoagatik, ibilbide luze eta oparoagatik, bere lan etengabe eta emankoragatik. Arrazoiz esan daitezke bera dela eta, zuek izan zinetelako gara, zuen belaunaldiaren ekinari esker gaude gauden lekuan. ●

EGIN BAT SABINO ARANA FUNDAZIOAREN LAGUNEKIN

CLICK: www.sabinoarana.org

ÚNETE A LOS/AS AMIGOS/AS



VICTOR AITOR PANTXO JOSEBA IÑIGO GIOVANNI JONE ALBERTO AMALIA RICARDO MIKEL ÁNGELA FÉLIX ISABEL GORKA ANA URKO MALEN MATILDE BEGONA ESTEBAN IBON EIDERA ALMUDENA ZIORTZA JOSU IRANTZU GARBINE MIREN LUZ IGONE LUIS DAVE ELVIRA IAN ALEX JUAN IKER TELMO XIXILI PEPE SUSANA ORKATZ RITA OR ARANTZA CECILIA IDURRE JONE VALENTIN EGUZKINE BAKARNE EGIN ZATEZ BAZKIDE! T: 94 405 64 50 HAZTE SOCIO/A! PRO BORJA JAIME OSCAR ALICIA VIOLETA MALENA RAQUEL AURORA PERU SONIA NORA GONZALO ALBERTO QUIQUE LUIS MARTINE ANDREA IMANOL LUKA MAR LEIRE JULEN ESTIBALIZ